Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2017ko maiatzaren 2a, asteartea — 82 — Martes, a 2 de mayo de 2017



## AZKOITIKO UDALA

*Iragarkia*

2017ko apirilaren 24ko Alkatetza Dekretu bidez Azkoitiko herrian gazteek etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak emateko 2017 urterako deialdia egitea onartu da. Deialdiak honela dio:

*Azkoitiko herrian pertsona gazteek etxebizitzak alokatzeko diru-laguntza deialdia 2017. urterako.*

*1. artikulua. Xedea eta epe lagungarria.*

Laguntza hauen xedea da eskaera egiten duten gazteen ohiko bizilekua izango den etxebizitzaren alokairua ordaintzen laguntzea, zati batean, bai dagoeneko etxebizitza errentan hartuta daukatenean eta baita –eskaerak aurkezteko epearen barruan eta eskaerarekin batera– 2017ko uztailaren 20a aurretik errentamendu-kontratua sinatzeko konpromisoa hartzen dutenean ere. Gaztea esatean, 18 eta 35 urte bitarteko pertsona esan nahi da.

Etxebizitza partekatzen duten gazte guztiak izan ahal izango dira onuradun, baldin eta errentamendu-kontratua denek sinatzen badute banan-banan. Kasu horretan, eskatzaile bakoitza bizikidetza-unitate independentea dela ulertuko da, eta kontratua sinatu duten guztien artean hainbanatuta konputatuko da errenta.

Deialdi honetan eta berau arautzen duen ordenantzan ezarritako baldintzen arabera tramitatu eta emango da diru-laguntza, eta onuradunak hamabi hilabetean gutxienez ordaindu beharreko alokairua ordaintzeko erabiliko da, baldintza horiek epealdi horretan zehar mantentzen baldin badira.

Araudi honetan jasotakoari jarraiki, alokairutik edo diruz lagundu daitekeen kontzeptutik kanpo geldituko dira, garaje eta komunitate eta administrazioko gastuei dagozkienak, bai eta kontribuzio edo zerga kontzeptupean sor daitezkeenak ere, dagokion kontratuan berariaz sartuta egonda ere.

Alokairuko hileko kuotatik 30 euroko balio finko bat kenduko da, aurreko paragrafoan deskribatutako garaje edo komunitate gastuengatik, alokairu kontratuan sartuta badaude eta ez bada horietako bakoitzaren hileko kostuaren berariazko justifikaziorik aurkezten.

*2. artikulua. Partida eta aurrekontuko diru-hornidura.*

Deialdi honetan emango diren diru-laguntzen zenbatekoa guztira 70.000 eurotakoa izango da, eta hori 2017. urterako Azkoitiko Udalaren Aurrekontu Orokorren honako partidatik egingo da:

6.000.480.933.00.01 zenbakidun «Gazteentzako Alokairurako dirulaguntzak» partida.

*3. artikulua. Jardueraren hasierako eta amaierako epeak.*

Edonola ere, alokairu kontratuak 2017ko uztailaren 20a baino lehen indarrean egon beharko du, eta gehienez lagundu daitekeen epea hamabi hilabetekoa izango da.

## AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

*Anuncio*

Por Decreto de Alcaldía de fecha 24 de abril de 2017 se ha aprobado realizar la convocatoria para el año 2017 de las ayudas para el alquiler de vivienda para jóvenes en el municipio de Azkoitia. La convocatoria es la siguiente:

*Convocatoria para 2017 de las ayudas para el alquiler de vivienda para jóvenes en el municipio de Azkoitia.*

*Artículo 1. Objeto y periodo subvencionable.*

El objeto de las presentes ayudas es el de contribuir -parcialmente- al pago del alquiler de la vivienda destinada a domicilio habitual de los jóvenes solicitantes, que ya sean arrendatarios de dicha vivienda, o se comprometan –dentro del período de presentación de solicitudes y junto con la solicitud al efecto– a suscribir el correspondiente contrato de arrendamiento antes del 20 de julio de 2017. Se entiende por persona joven aquella de una edad comprendida entre 18 y 35 años.

Podrán ser beneficiarias aquellas personas jóvenes que compartan una vivienda siempre que el contrato de arrendamiento se suscriba con todos y cada uno de ellos. En tal supuesto será considerada cada una de las personas solicitantes como una unidad convivencial independiente, y la renta será computada de forma prorrateada entre cada una de las suscribientes del contrato.

La subvención se tramitará y otorgará de conformidad con las condiciones establecidas en la presente convocatoria, y en su ordenanza reguladora, y será destinada al pago del alquiler imputable a la persona beneficiaria durante un mínimo de doce meses, y siempre y cuando dichas condiciones se mantengan durante este periodo de tiempo.

A efectos de lo dispuesto en esta normativa, quedan excluidos del concepto de alquiler o cantidad subvencionable, los correspondientes a garajes y gastos de comunidad y administración, así como los que se produzcan en concepto de contribuciones y arbitrios, aun cuando figuren expresamente incluidos en el correspondiente contrato.

Se descontará del coste de la mensualidad de alquiler un valor fijo de 30 euros por garaje o gastos de comunidad descritos en el párrafo anterior, cuando estén incluidos en el contrato de alquiler y no se aporte justificación expresa del coste mensual de cada uno de ellos.

*Artículo 2. Partida y dotación presupuestaria.*

La cuantía total de las subvenciones a conceder en esta convocatoria será de 70.000 euros correspondiente a la siguiente partida de los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Azkoitia para el año 2017:

Partida de «Subvenciones alquiler para jóvenes»: 6.000.480.933.00.01.

*Artículo 3. Plazo de inicio y fin de las actuaciones.*

En todo caso, el contrato de alquiler deberá estar vigente con anterioridad al 20 de julio de 2017 y como máximo, el periodo subvencionable abarcará doce meses.

EK\CV GAO-I-2017-02853

*4. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak eta eskaerak aurkezteko epea.*

— Dokumentazioa:

Eskaerak deialdi honekin batera atxikitzen den eskaera orriaren arabera aurkeztuko dira.

Eskaerarekin batera, diru-laguntza hauek arautzen dituzten oinarri orokorretako 8. artikuluan zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

— Eskariak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea, deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako egunaren biharamonetik hasiko da zenbatzen.

Edonola ere, eskariak aurkezteko epea 2017ko ekainaren 20an amaituko da.

*5. artikulua. Egiaztatze agiriak eta aurkezteko epea.*

Lehenengo ordainketa deialdia ebatzi ondoren egingo da. Eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunetik hilabete eta erdi igaro aurretik ebatziko dira diru-laguntzak eta bertan lehen ordainketa aginduko da, data horretaraino dagozkion ordainagirien arabera.

Hurrengo ordainketei dagokienez, zatika egingo dira, hiru hilabetetik behin, hiruhilekoa amaitzean, eta justifikatu egin beharko da hil horietan alokairua ordaindu izana. Azkoitiko Udalaren bulegoetan edo, hala badagokio, Azkoitia Lantzen S.A.ren bulegoetan entregatu beharko dira alokairua ordaindu izanaren agiriak, hiruhileko natural bakoitzaren ondorengo lehen 15 egunen barruan.

Alokairu partekatua denean, bizikidetza-unitate bakoitzari emateko laguntza kalkulatzeko, etxebizitza osoaren hileko errenta zatituko da kontratuko titularren kopuruaren artean.

Aurkeztu beharreko egiaztatze-agiriak oinarri orokorren 12. artikuluan zerrendatutako agiriak izango dira.

*6. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena.*

Prozeduraren ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta espedienteak tramitatu eta ebazteko eta behar diren jakinarazpenak egiteko epea bost hilabetekoa izango da gehienez. Epe hori deialdia argitaratzen denetik aurrera hasiko da zenbatzen.

Prozeduraren ebazpena interesatuei jakinaraziko zaie 1992ko azaroaren 26ko 30/92 legeko 58. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta lege horretako 59. artikuluak jasotzen dituen xedapenen arabera gauzatuko da.

Organo eskudunak:

— Instrukzioa eta proposamena: Azkoitia Lantzen S.A.

— Ebazpena: Alkatetza.

Gainontzeko guztian, Ordenantza Erregulatzaileak diona beteko da.

Azkoitia, 2017ko apirilaren 24a.—Alkatea. (2853)

*Artículo 4. Documentación y plazo para la presentación de las solicitudes.*

— Documentación:

Las solicitudes deberán presentarse conforme al modelo de solicitud que se acompaña a esta convocatoria.

Junto a la solicitud, deberá presentarse la documentación establecida en el artículo 8 de las bases generales reguladoras de las presentes subvenciones.

— Plazo de presentación de solicitudes.

Las solicitudes podrán presentarse desde el día siguiente a la publicación del anuncio de esta convocatoria en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

En todo caso, el plazo de presentación de las solicitudes finalizará el 20 de junio de 2017.

*Artículo 5. Documentación justificativa y plazo para su presentación.*

El primer pago se realizará tras la resolución de la convocatoria. La resolución de concesión de las subvenciones se acordará en un máximo de mes y medio tras la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes, y en el mismo se ordenara un primer pago de la ayuda, proporcional a los justificantes de pago presentados hasta la fecha.

En relación con los pagos siguientes, aquéllos se realizarán de manera fraccionada, por trimestres vencidos, debiendo justificarse los pagos de las mensualidades correspondientes. La entrega de los justificantes de abono se realizará en las oficinas del Ayuntamiento de Azkoitia, o en su caso, de Azkoitia Lantzen S.A., en los 15 primeros días posteriores a cada trimestre natural .

En el caso de arrendamientos compartidos, el cálculo de la ayuda por unidad convivencial, se realizará dividiendo renta mensual total de la vivienda, entre el número total de titulares del contrato.

La documentación justificativa será la que se relaciona en el artículo 12 de las bases generales.

*Artículo 6. Resolución y notificación.*

La resolución del procedimiento pondrá fin a la vía administrativa y el plazo máximo para tramitar y resolver los expedientes, así como para practicar las notificaciones pertinentes, no podrá exceder de cinco meses. El plazo se computará a partir de la publicación de la correspondiente convocatoria.

La resolución del procedimiento se notificará a los interesados de conformidad con lo previsto en el artículo 58 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, y su práctica se ajustará a las disposiciones contenidas en el artículo 59 de la citada ley.

Órganos competentes:

— Instrucción y propuesta: Azkoitia Lantzen S.A.

— Resolución: Alcaldía.

En todo lo demás se estará a lo dispuesto en la Ordenanza reguladora.

Azkoitia, a 24 de abril de 2017.—El alcalde. (2853)

EK\CV GAO-I-2017-02853

AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**I ERANSKINA**

**GAZTEENTZAKO ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRULAGUNTZA ESKARIA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ESKATZAILEA** | | | |
| Izen-deiturak | | NAN | |
| Helbidea | | Zbkia. Solairua Atea | Herria: AZKOITIA |
| Telefonoa | Mugikorra | e-mail | |
| **ETXEBIZITZA UNITATEKO GAINERAKO KIDEAK** | | | |
| Izen-deiturak | | | NAN |
| Izen-deiturak | | | NAN |
| Izen-deiturak | | | NAN |
| Izen-deiturak | | | NAN |
| **ALOKAIRU KONTRATUA** | | | |
| □ BAI | Kontratuaren sinadura data: | Kontratuaren baliozko data: | |
| □ EZ | 2017ko uztailaren 20 baino lehen alokairu kontratu bat sinatzeko konpromezua hartzen dute. | | |

**DIRULAGUNTZA** eskatzen dut gazteentzako etxebizitza alokatzeko, beti ere, deialdi hau arautzen duten oinarriekin bat etorriz.

Azpian sinatzen dutenek honako hau adierazten dute:

1) Eskarian bertan, bai eskariarekin batera aurkeztutako datu guztiak benetakoak dira.
2) Etxebizitzan bizi diren pertsona GUZTIEN berri eman dute.
3) Kontratuaren titularkide guztiak, edo Bizikidetza Unitateko kide guztiak, etxebizitzan erroldatu beharko dira. Kontratua hasi baino lehenagoko datarekin, titularrak ez diren pertsonak etxebizitzan erroldatuta baleude, kontratuaren titularrrek erroldako baja eskaera egin beharko dute pertsona horientzat, diruz lagundu daitekeen epearen barruan.
4) Etxebizitzan bizi direnak ez dute errentatzailearekin bigarren mailara arteko odoleko loturarik ezta kidetasunik.
5) Etxebizitzak oinarrietan aipatzen diren bizigarritasun baldintzak betetzen ditu.
6) Ez zaie laguntzarik eman diru-laguntza kontzeptu beragatik, edo emandako laguntzen zenbatekoak erakusten dituzten agiriak aurkezten dira:

Laguntzak jasoz gero, zehaztu laguntza horien mota eta zenbatekoa:

□ Emantzipazioko Oinarrizko Errenta Hileroko zenbatekoa: ____________________
□ Diru-laguntza Kontzeptu beragatiko Premia Sozialeko laguntzak Hileroko zenbatekoa: ____________________
□ Beste laguntza batzuk: ____________________Hileroko zenbatekoa: ________________

Era berean, udal zerbitzuei baimena ematen zaie Zerga Administraziotik behar dituzten datuak jasotzeko, horrela beraien diru-sarrera garbiak zehazteko eta baldintza ekonomikoak betetzeko, diru-laguntza hauen ondorioetarako. Baimenik eman ezean, interesdunek emango dute behar den dokumentazioa, beraien baliabideak erabiliz.

**IDAZKARITZA** – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.eus
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA

AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**OSO GARRANTZITSUA:** ETXEBIZITZA UNITATEKO 18 URTETIK GORAKO KIDE GUZTIAK ESKABIDE HAU SINATU BEHAR DUTE

| | | |
|---|---|---|
| Iz.:<br><br>□ Baimena ematen dut<br>□ Ez dut baimenik ematen | Iz.:<br><br>□ Baimena ematen dut<br>□ Ez dut baimenik ematen | Iz.:<br><br>□ Baimena ematen dut<br>□ Ez dut baimenik ematen |
| Iz.:<br><br>□ Baimena ematen dut<br>□ Ez dut baimenik ematen | Iz.:<br><br>□ Baimena ematen dut<br>□ Ez dut baimenik ematen | Iz.:<br><br>□ Baimena ematen dut<br>□ Ez dut baimenik ematen |

**LEGEZKO OHARRA:**

Eman dizkiguzun datu pertsonalak Azkoitiko Udalaren ardurapeko fitxategian landu eta sartuko dira. Datu Pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 15 eta 16 artikuluetan xedatutakoaren arabera, datuak eskuratu, zezendu, ezeztu eta horiei aurka egiteko eskubideak erabili ahalko dituzula jakinarazi nahi dizugu. Horretarako, hona jo beharko duzu: Herriko Plaza z/g – 20720 AZKOITIA (GIPUZKOA).

**IDAZKARITZA** – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.eus
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA

AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**SOLICITUD DE SUBVENCIÓN PARA ALQUILER DE VIVIENDA JOVEN**

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **SOLICITANTE** | | | | | |
| Nombre y Apellidos | | | | DNI | |
| Dirección | | Nº. | Planta | Puerta | Municipio: AZKOITIA |
| Telefono | Móvil | | e-mail | | |
| **RESTO DE INTEGRANTES DE LA UNIDAD CONVIVENCIAL** | | | | | |
| Nombre y Apellidos | | | | DNI | |
| Nombre y Apellidos | | | | DNI | |
| Nombre y Apellidos | | | | DNI | |
| Nombre y Apellidos | | | | DNI | |
| **CONTRATO ALQUILER** | | | | | |
| □ SI | Fecha firma contrato: | | Fecha validez contrato: | | |
| □ NO | Se compromete a formalizar un contrato de alquiler antes del 20 de julio de 2017. | | | | |

**SOLICITO** subvención para el alquiler de vivienda joven de acuerdo con las condiciones establecidas en las Bases que rigen la presente convocatoria.

Los abajo firmantes, bajo su responsabilidad, declaran que:

- Todos los datos aportdos junto con la solicitud, son ciertos.
- Se han hecho constar TODAS las personas que habitan la vivienda.
- Deben constar empadronadas en la vivienda las personas titualres del contrato, asi como los miembros de la Unidad Convivencial. En caso de que haya personas no titulares del contrato empadronadas en la vivienda con fecha anterior al inicio del contrato, los titulares del contrato deberán formular la solicitud de baja del padrón de dichas personas, dentro del periodo de subvención.
- Ninguna de las personas que habitan en la vivienda, deben tener vinculación familiar con el arrendador hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad.
- La vivienda para la que solicita subvención reúne las condiciones de habitabilidad requeridas en las referidas bases.
- No se les ha reconocido ayudas por el mismo concepto subvencionable o, en caso contrario, que se aporta la documentación que permite conocer la cuantía de las ayudas reconocidas:

En caso de recibir ayudas, marcar tipo y cuantía:

□ Renta Básica de Emancipación Cuantía mensual: ____________________
□ Ayudas de Emergencia Social por el mismo concepto subvencionable Cuantía mensual: ____________________
□ Otras ayudas: ___________________________ Cuantía mensual: ____________________
Igualmente, autorizan a los servicios municipales a que puedan recabar de la Administración Tributaria los datos necesarios para establecer sus ingresos netos y cumplimiento de requisitos económicos a los efectos de la presente subvención. Caso de no autorizar, los interesados aportarán por sus medios la documentación pertinente.

**IDAZKARITZA** – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.eus
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA

AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**MUY IMPORTANTE**: TODOS LOS MIEMBROS DE LA UNIDAD CONVIVENCIAL MAYORES DE 18 AÑOS, DEBERÁN FIRMAR LA PRESENTE SOLICITUD

| | | |
|---|---|---|
| Fdo.:<br><br>□ Autorizo<br>□ No autorizo | Fdo.:<br><br>□ Autorizo<br>□ No autorizo | Fdo.:<br><br>□ Autorizo<br>□ No autorizo |
| Fdo.:<br><br>□ Autorizo<br>□ No autorizo | Fdo.:<br><br>□ Autorizo<br>□ No autorizo | Fdo.:<br><br>□ Autorizo<br>□ No autorizo |

**AVISO LEGAL:**
Los datos de carácter personal que nos ha proporcionado serán tratados e incorporados en un Fichero responsabilidad del Ayuntamiento de Azkoitia. Conforme a lo dispuesto en los artículos 15 y 16 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, le informamos que puede ejecutar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición. Para ello, deberán dirigirse a: Herriko Plaza z/g – 20720 AZKOITIA (GIPUZKOA).

**IDAZKARITZA** – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.eus
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA

EK\CV GAO-I-2017-02853

AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**II ERANSKINA / ANEXO II**

**KONTU ZENBAKIA ZIURTATZEKO BANKU AGIRIA**
CERTIFICADO BANCARIO ACREDITATIVO DEL NÚMERO DE CUENTA

1. **EZAGUNERAKO DATUAK** / DATOS IDENTIFICATIVOS

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Izen-deiturak / Nombre y apellidos | | | | NAN / DNI |
| Helbidea / Dirección | Zbkia. / Nº | Solairua/Planta | Atea / Puerta | Herria / Municipio **AZKOITIA** |
| Teléfonoa / Teléfono | | Mugikorra / Móvil | | e-maila |

2. **BANKU DATUAK** / DATOS BANCARIOS

| |
|---|
| Banketxea / Entidad bancaria |
| Erakundea / Entidad:<br>Agentzia / Agencia:<br>K.C. / D. C.:<br>K/Korrontea / C/Corriente : |
| Titularra / Titular |

| | |
|---|---|
| Bankuaren adostasuna<br>Conformidad Banco<br><br><br>Sinadura eta zigilua<br>Firma y sello | Ordezkariaren adostasuna<br>Conformidad Representante<br><br><br>Sinadura eta zigilua<br>Firma y sello |

**IDAZKARITZA** – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.eus
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA

EK\CV GAO-I-2017-02853